



**BARREN**

ELGOIBARKO ASTEKARIA

517. zka.  
XIII. urtea  
2005eko otsailaren 11a

**Edu Gomez**

# Mister Euskadirako hautagaia



elgoibar **ikastola**

# eurei dagokie

matrikula itzazu PARTAIDEko ikastoletan

**Matrikulaketa epea:  
otsailaren 14tik 25era**



**elgoibar ikastola**

☎ 943 744441

[elgoibar@ikastola.net](mailto:elgoibar@ikastola.net)





AMAIA GORROTZATEGI

Laguunnddu!!! Azterketetan nagooo!!!  
Bat batean esnatu naiz, eta ai ama!!  
Iratzargailuak aspaldi jo du!! Baina ez,  
gaueko ordu biak dira, bi ordu eskas igaro  
dira izarak laztandu ditudanetik.

Berriz lo hartu nahian nabil, baina  
bisigodoak nire ohean sartu dira eta  
beraien legeak xuxurlatzen dizkirate  
belarrira, amodiozko hitzak bailiran. Ez al  
dute egiteko hoberik!!

Goizeko 8ak, ikasten hasteko ordua,  
ahalik eta polikien gosaltzen dut eta  
erratza pasatzen hasten naiz. Ikasten ez  
hastearren egin dezakeguna izugarria da!!

Liburuak atzoko lekuan daude, ni  
ikusteaz pozik. Lagun batek dio  
anatomiaiko liburua izan duen  
bikotekiderik onena dela, berarekin  
haserretu eta sekulako madarikazioak  
bota arren, zintzo zintzo besoak zabalik  
hartzten baitu, maitekero.

“Zuzenbideko estatua, modu  
arrazionalean antolaturiko estatua da”.  
Masarikatua Zuzenbidean matrikulatu  
nintzen eguna!!

Beno Ainhoatxo, zu ere examenetan  
bazaude ez erantzun gutun honi, ez izan  
ni bezain leloa eta ez galdu denbora  
Barrenerako tontakeria havek idazten.  
IKASI!! Irakurle, zu ere zezenak harrapatu  
bazaitu gogoratu bi minutu galdu dituzula  
eta denbora horretan ikasi zenezakeena  
galdetuko dizutela azterketan!!

## ZOZOAK BELEARI...



AINHOA MENDIBIL

Nik ere horrexegatik hartuko nuen  
boligrafoa horren gustura, erantzuteko  
denbora gabe nabilelako. Eta  
horrexegatik baztertuko nuen une batez  
ontzi bat pintatzeko esku artean dudan  
pintzela. Egia da historiako liburua  
motxilan dudala zain. Eta baita  
matematikako funtzio nazkagarriak eta  
latineko hirugarren deklinazio txoriburua  
ere! Baina Amaia, zeuk ondo esan duzun  
bezala ikasleonekin imajinazioak Oskarra  
merezki izaten du azterketa garaian

Beno, egia esan, ni oraindik ez naiz  
ebaluaketako lau egun madarikatu  
horietan murgildu, baina ez dakit zer den  
txarrago. Izan ere, orain zuk irakurle  
(Barixakua izanik) atzean laga duzun aste  
luze hau nik etxean eman dut. Eskolarik  
ez!! Egia esan, aitortzen dut ikasteko  
gogoa dela falta zaidana. Eta ziur nago  
orain idazten nabilen hau irakurtzen  
dudanean nire burua mila bider  
madrarikatuko dudala!

Izan ere, ziur astea etxean botata,  
kalean lagunekin, irakurtzen, parrandan  
edo beste dozeretan mean dudala! Tai-Chi  
egitea ere hobe ikasi baino!

Beraz, animo ikasle guztioi! Ikasteko  
ordua da!!

Patxo bat, Amaia.

PD norbaitek esango al dit joan den  
zapatuan (karnabal!!) nire jipiaren gona  
jaso zidan ‘Pelanasá’ nor izan zen?

«Madrarikatua  
Zuzenbidean  
matrikulatu  
nintzen eguna!»

AMAIA

«Parranda edo  
Tai-chi egitea  
hobe ikastea  
baino!»

AINHOA



HITZAK JUN EITEN DIRA, ESKRIBITUTAKOA EZ



Esaera zaharra

## Datorren urtera arte!

Aurten ere hutsik egin gabe iritsi da otsailaren 4a, Santa Ageda bezpera. Egun hau inportantea izaten da gurean. Baserritarrekin hartuta izaten dugu zita.

Hogeita bi lagun inguru elkartu ginen Plaza Handian. Bi taldetan banatu eta arratsaldeko hiruretan abantatu ginen kopla kantari, atariz atari, eskean. Beso zabalik hartu gintuzten baserritarrek, irribarra ezpainetan zutela. Borondate onenarekin. Izan ere, estimatzen dute Santa Ageda bezperako ohitura zaharra. Zaharra eta gurea delako zaindu eta gorde behar dugun ohitura. Pena ematen digu baseri gehiagotara ez juteak, baina arratsaldeak ez du gehiagorako ematen. Datorren urtean zapatuan izango da, eta, ondo bagara, egun osoz jardun nahi dugu kantuan baseri gehiagotara ailegatzeko.

Zortzi ordu inguru baseriz baseri kopla kantari jardun ondoren, urtero moduan, San Migeleko soziedadean hartu genuen atsedena. Atsedena eta San Migeleko lagunak prestatutako afari goxoa geneuzkan zain. Eta mahaiaren bueltan kontu-kontari jardun eta gero, goizeko ordubiak ziren mahaitik altxatu eta "datorren urtera arte" esan genionean elkarri. Bai, datorren urtean ere berriz elkartuko gara. Izan ere, baserritarrek hala nahi duten bitartean, otsailaren 4a egun berezia izango da Elgoibarko Izarran.

Elgoibarko Izarrako Santa Ageda taldearen izenean, mila esker, bihotzez, baserriko ateak zabaldu zenituzten

baserritar guztioi. Eskerrik asko, bertsolari eta trikitilari. Eskerrak, baita ere, koruetan parte hartu zenuten guztioi. Eskerrak Sahatzuri, furgonetagatik. Eta, azkenik, esker bereziak San Migeleko elkartekeoi urtero eskaintzen diguzuen harrera eta afariarengatik.

Datorren urtera arte, denoi.

## ELGOIBARKO IZARRAKO SANTA AGEDA TALDEA

### Azoka eta herri-galdeketa

Denetik egiten saiatu gara: kontzentrazioak, mozioak... Eta, halere, azokarik gabe jarraitzen dugu. Hori dela eta, mozioa aurkeztu genuen merkadilloaren inguruan Herri Galdeketa egitea proposatu herritarrek gai honen inguruan duten iritzia jasotzeko. Erantzuna? Oposizioko taldeen kontrako salaketa gogorak eta Ekimenari legitiimitate osoa ukatzea. Jarrera itxi honen aurrean, dei egin nahi diegu herritarrei, gazte nahiz helduei, otsailaren 17an, arratsaldeko 18:30ean Plaza Handitik aterako den manifestazioan parte har dezaten. Leloa honakoa izango da: "Herriak du hitza, Merkadilloa: konponbidea".

Badakigu Marivi alkateak eta bere taldeak gehiengoaren babesa jaso zutela azken hauteskundeetan, baina aurkeztu zuten programan ez zen aipatzen azoka lekuz aldatuko zutela. Beraz, herriak gai honen inguruan erabaki bat hartu behar dela uste dugu, beste bi urte eta erdi itxaron gabe, ordurako berandu izango

da-eta. Hori dela eta, otsailaren 20an, igandea, herritar guztiek izango dute aukera azokari buruzko iritzia emateko. Izan ere, Europako Konstituzioaren erreferendum-a aprobetxatuz, hautesleku sarreran mahaiak, boto-txartelak eta ontziak jarriko ditugu jendeak bozka dezan. Merkadilloa behar dugu!

## ELGOIBAR BIZIRIK

### Euskal Presoak Euskal Herrira

Urtarrilaren 3an, espetxe guztietan, euskal preso politikoei planto bat egin zuten borrokaldiari hasiera emanaz. Orduz geroztik, txandaka ari dira egiten hamar eguneko txapeoak. Honen helburua, isolamendua eta dispersioa gaintzea eta gatazkaren konponbiderako subjektu aktibo eta politikoa gisa presoek izan behar duten papera aldarrikatzea da. Ekimen honetan kolektibo osoak hartuko du parte. Preso dauden elgoibartarrek ondoko egunetan egingo dute txapeoa: Bertek otsailaren 3tik 13ra bitartean; Iriondok otsailaren 13tik 23ra eta Etxanizek otsailaren 23a eta martxoaren 5a bitartean. Lerro hauen bidez deialdia egin nahi diegu herritar guztiei ostiralean, hilak 11, iluntzeko 20:00etan egingo den enkarteladan parte har dezaten.

Presoak borrokan, Euskal Herria ere bai!

## ELGOIBARKO AMNISTIAREN ALDEKO BATZORDEA



BARRENez ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zkia**.

# [b]arren

Argitaratzailea:



Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR  
☎ 943 74 41 12 • Faxa: ☎ 943 74 37 04  
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04  
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala **ZUZENDARIA** Jasoñe Osoro **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea **PUBLIZITATEA** Amaia Erkizia **MARKETZAILERIA** Jaione Unanue **KOLABORATZAILERAK** Uxue Alberdi, Mikel Comejo, Juanito Garosiza, Amaia Gorrotxategi, Imanol Larranaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Esther Gurmuzaga, Iban Urizar, Kokoa KE, Urutzuno, Unai Villena, Alaitz Vives **ESPERA ZAHARRA** Gotzon Garateren **LIBURUTIK** **INPRIMATEGIA** Gertru Koop. E. **TIRADA** 4.300 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1038/92 **ISSN** 1139-1855



Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.



KEXAK



Herritar batek esan digunez, **Santa Ana Kaleko errotondan dauden zabor kontenedoreek auto gidariei ikus-eremua murrizten diete**: "Santa Ana kaletik errotondara sartzeko zabor kontenedoreek traba egiten dute. Autoa gehiegi aurreratu behar izaten da beste autorik datorren ikusteko, eta arriskutsua da. Toki hori ez da zabor kontenedoreak jartzeko egokiena".



## GALDERA

**Noiz jarriko dituzte martxan Artekaleko eskailera mekanikoak?** Herritar batek egin digu galdera hau, izan ere, duela hilabete baino gehiago jarri zituzten eskailerak bere lekuan, eta dena bukatuta dagoela dirudien arren, oraindik eskailerak geldirik daude. Udaleko Hirigintza Sailera jo dugu, eta esan digutenez lan hori Muno izeneko enpresa pribatuak darama. Bertara deitu dugu, eta gerenteak esan digunez, beraien asmoa berehala martxan jartzea da. Proba guztiak eginak omen daude, eta berehala jarriko dituzte martxan.



## TXALOK

Elgoibar Ikastolak **Mari Karmen Arizaga** txalotu nahi du ihauteri kalejiran erabili diren jantzi eta apaingariak egiten agertu duen borondate bikainarengatik. Bestalde, Ikastolako guraso taldeak **Ikastolako irakasle eta ikasleak** txalotu nahi dituzte, astearte arratsaldean Plaza Handian eskaini zuten eskual ihauterietako ikuskizuna oso polita izan zelako.

Emakume batek **Udala txalotu nahi du** astearte arratsaldean Plaza Handian egon zen antzerkiagatik eta Txaranga ordubeten aurreratzeagatik: "Bestetan umeentzako berandu izaten da, eta aurten oso gustura ibili dira denak txarangan". Gazte koadrila batek, bestalde, **Mauxitxa Txaranga** txalotu nahi du, gauean berriz ere atera eta giro oso ona jarri zutelako.

Atal honetarako kexak, txalok edo galderak helarazteko:

**E-posta:** [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

Nafarroa enparantza, 2

20870 ELGOIBAR

☎ 943 74 41 12





**MEKANOSA**  
Errosario, 30  
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ PLANOEN BIRREGILEAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX




## URRUZUNIOREN *Luma*

### HiperEuropar Batasuna

Gizona saltokian sartu da. Saltokia erraldoia da eta bertan euroa erabiltzen da. Apal asko daude, baina Europako estatu handietako produktuak daude bakarrik. Gizonak euskal baserriaren esnea bilatu du baina ez du horrelakorik aurkitu. Saltzaileari euskaraz egin dio galdera. Hark, ordea, euskara ez dutela ametitzen esan dio eta beste hizkuntza bat erabiltzeko eskatu dio. Katalanez eta galegoz saiatu da baina alferrik, horiek ere ez dira balekoak han. Estatuen hizkuntza ofizialak dira erabilgarriak, ez ordea Europako nazio txikietakoak. Gizona, desenkantaturik, hipermerkatutik irten da. Ate gainean idatzita dagoen kartelak zera dio: Europar Batasuna. Gizonak bere europarzaletasuna erabat zapuzturik ikusi du eta Europar Batasun hau ez duela gustuko erabaki du.

*Jon Eugi*

### komikia



*Kokoe 005*

### [ ZORTZIKO TXIKIAN ]



## JOSE LUIS MARIN

EIZAGIRRE OKINDEGIA

Maitasunaren inguruan...

- **San Valentinerako oparia?**  
Bidaia bat. Urtero egiten dugu, aurten niri tokatzen zait.
- **Maitemintzerakoan zer baloratzen duzu?**  
Konfiantza, eta pertsona maitakorra izatea.
- **Elkarbizitza ala bakoitza bere etxean?**  
Elkarbizitza, bakarrik oso gaizki moldatzen naiz. Ikasle garaian oso gaizki pasatu nuen Donostian.
- **Bikotea zaharragoa ala gazteagoa nahiago?**  
Nire kasuan zaharragoa da, baina berdin zait.
- **Betirako maitasuna existitzen al da?**  
Nire kasuan momentuz bai, 20 urte daramatzagu elkarrekin. Espero dut askorako izatea gure maitasuna.
- **Musuak ematea ala jasotzea nahiago?**  
Jasotzea. Emaztearen familiakoek etengabe ematen dituzte musuak, nik aldiz, nahiago dut jasotzea.
- **Askotan pertsona berarekin ala askorekin behin?**  
Askotan berarekin, egonkortasuna gustatzen zait.
- **Lehenengo ala azken aldia hobea?**  
Azkena, lehenengo ez zen oso ondo atera.

## [AKORDATZEN NAIZ]



**FELISA BERGARETXE**

1915an jaioa

### «Pianua»

**O**rdenadoriari ez diot kasorik egiñ, baiña pianua asko gustatzen jota. 70 urterekin hasi nitzan pianua jotzen. Donostiako konserbatorixoko publikidadia ailegatu jatan, eta deitxu egin naban. Elgoibarren ez naban nahi, danok ezagutzen gera, eta zer esango zaben bildurra nakan. Orduan Donostiara deitxu naban, eta galdetu egin naban. Esan niuen ez nitzala gaztetxo bat, edadetua nitzala esan niuen, eta juateko esan zien. Holaxe, astian behiñ, trenian juaten nitzan. Gero, Debako tunela egitzen hasi ziranian, trاسبordua egitzen zeben, eta trenaren ordua aldatu egin zeben. Orduan laga egin bihar izan naban, taxisian juaterik ere ez naban nahi-eta!



BARRENen egin zien entrebistia, eta Elgoibarkuak enterau ziran pianua jotzen nabala, eta hemengo konserbatorixora juatera animau nindduen. Eta bueno, ba holaxe hasi nitzan hemen. Ondiokan segitzen dot, baiña jendiaren aurrian jotzerik etxata gustatzen. Neuretzat bakarrik jotzen dot. Behiñ, pieza bat jotzen ari nitzala, atia zabaldu, eta ixil-ixilik sartu ziran irakaslia eta beste ikasle bat, ni entzutera. Amaitxu nabanian txaloka hasi ziran, oso ondo jo nabala esanez. Gustora nabil.

## [GURE BERBAK]

Baiezko ukapenak:  
*ez, baiña bai*

Ahoz asko erabiltzen dogun egitura paradogiko bat azalduko dogu gaur; paradogikua esaten dot, holakuetan gauza bat adierazteko, kontrakua esaten dogulako: ezezko formak dira, baiña baiezko esanahixa dauke; ez dira, hortaz, literalki hartu bihar:

-Txarrikerixia eta ustelkerixia nagusi. Ez dok giro baztarretan!

-Ez ibilli, gero, zintzo, eh! (amak kalera dixezen seme-alaberi)

-Telebisioko euskaria entenditzen dozue? -Entendiduko ez dogu, ba!

-Beti alkarrekin gaude, eta ez ditt ba preguntau ze apellido daukaten!

-Etorriko haiz gurekin mendira, ezto?

-Esan diot hurrenguan hainbeste lata ez emateko. -Ez alperrik!

-Donostiako Aste Nagusixa etxakue esaten Donostiako jaixeri?

*Jesus Mari Makazaga*

## IX. URTEURRENA



1996ko otsailaren 11n, 21 urte zituela hil zen *Gaizka Galdos Arakistainen* oroimenez urteurreneko meza izango da, igandean, otsailak 13, eguerdiko 12:00etan Mendaroko Garagarza elizan. Joango zaretanoi eskerrak alde zuretik.



## ESKERTZA

*Aittitta:  
zure irrifarrea ez zaigu  
inoiz ahaztuko  
beti egongo zara  
gure artean  
zure bilobak*



*Trino Sasiain Etxaniz*  
2005eko otsailaren 6an hil zen

**Emazteak, seme-alabek, bilobek eta gainerako sendiak**



MOZORRO FESTA

## IHAUTERIAK 2005

*Otsailaren 5a. Sekula baino lehenago iritsi dira aurten ihauteriak. Azkarregi. Askok eta askok ez dute ia astirik izan mozorroa nahi bezala prestatzeko eta larunbat gaueko giroa horren islada izan zen: jende gehiegirik ez. Halere, gure kamera zapatu gauean eta astearte arratsaldean kaleak kolorez bete zituzten mozorroen lekuko izan zen. Argazkiotan, horietako batzuk ikusi ahal dituzue: telebistako pertsonaiak, On Kixote... Datorren urterako pistarik nahi?*







## [ PROTAGONISTA ]



Sabin Osoro

Etiopiatik Yemenera. Ongari eta Udaleko Kultura Sailak antolatuta, Sabin Osorok Yemen izeneko argazki erakusketa jarriko du ikusgai bihar hasi eta datoren otsailaren 26ra arte. "Arabiar herriari nire esker ona adierazi nahi diot erakusketa honen bidez", adierazi du Sabin Osorok. Yemengo biztanleen aurpegi eta begiradak baztertu gabe, herriak, kaleak, etxeak eta, batez ere, eskuak ikusiko ditugu erakusketa honetan.

Interesatuak, asteleheneetik larunbatera, arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara ikusi ahal izango dute erakusketa hau, Kultur Etxeko erakusketa gelan.

## [ NOTIZIA ]

### 15.122.444 euroko aurrekontua izango du Udalak 2005ean

**A**spaldiko partez alderdi politiko guztien aldeko botoarekin eta Ezker Batuaren abstentzioarekin onartu ziren aurrekontuak udal plenoan. 15.122.444 euroko aurrekontua izango du Udalak 2005ean, eta horren %25a inbertsioetarako erabiliko da. 974.411 euro San Lazaro Egoitzarentzat izango dira, eta 784.958 Kirol Patronatuarentzat.



#### Elgoibar Bizirik

EAJ eta EA alderdiek ez zioten babesik eman PSE-EE eta Ezker Batuak "Elgoibar Bizirik" plataformaren izenean aurkeztu zuten proposamenari. Merkadilloaren gaineko erreferenduma egitea barregarria dela adierazi zuten, eta autokritika egiteko eskatu zieten.

Einbiouk eta Ezker Batuak prentsaurrekoan esan zuten, "EAJ eta EAK uste dute akordio batera iristea galtzea dela. Nahiago dute inork ulertzen ez duen jarrera itxia mantendu. Ibarretxe Planaren oinarria herri-galdeketa da. Nazio mailan defendatzen dutenaren eredu eman behar dute herrian".

## [ ZENBAKIA ]

# 570

Elgoibarko Izarrak 570 bazkide inguru ditu eta orain astebete jarri zuen martxan bazkide berriak egiteko kanpaina. Batez ere 18-35 urte bitarteko gazteak erakari nahi dituzte. Euskaltzaleak eta euskararen alde zer bait egin nahi dutenek elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com helbidera idatzi ahal dute.

## asteko [ ARGAZKIA ]



Hasi dira dagoeneko herriko parkeetan haurrentzako jolasak jartzen. Oraindik obrak bukatu gabe dauden arren, gurasoekin haurrak parkera sartzeko direla adierazi digute Udaletik. Jolasak oraindik lurrean behar bezala lotu gabe daude kaitxuzko zorua jartzeko, eta ariskutsua da prezintatutako gunera sartzea.

Udalak dei bat egiten du, obrak behar bezala bukatu bitartean parkeetara umerik joan ez dadin, eta ezbeharren bat gertatuz gero, Udala ez da horren arduraduna izango.

## Debararrenako sei ikastetxe berri sartu dira Eskola Agenda 21 programan



**A**urtengo ikasturtean Debararena Eskualdeko sei ikastetxe berri eman dute izena Eskola Agenda 21 programan. Horien artean Elgoibar Ikastola izan da bat. Orain arte, eskualdeko bost zentru zeuden egitasmo honetan, besteak beste, Elgoibarko Institutua eta Pilar Ikastetxea. Beraz, 2005ean, gure herriko hiru ikastetxek hartuko dute parte egitasmo honetan.

Debararrenan LH eta DBH ikasketak eskaintzen dituzten 30 ikastetxe daude eta horietatik 11 eskolek baietza eman diote proiektuari, guztira 2.103 ikasle.

### Helburuak

Eskola Agenda 21 egitasmoak hiru helburu nagusi ditu: hezkuntza zentruaren ingurumenaren sostengarritasuna, berriztapen kurrikularra eta elkartearen partehatzea. Honen bidez, irakasleek ikasleei bere hezkuntza zentruko eta herriko ingurumen arazoak aztertzen eta ulertzen laguntzeaz gain, herritar arduraduna izaten erakusten diete, gizarte justua eta ekologikoki sostengarria izateko.

Momentu honetan hondakinen gaia lantzen ari dira ikastetxeak.

## [ MOTZ-MOTZIAN ]

### Sexismoari stop! pegatina lehiaketa

Biluzik Sexologia Zerbitzuak Sexismoari Stop pegatina lehiaketa antolatu du. 15 eta 30 urte bitarteko gazteek hartu dezakete parte. Lanak paperean eta euskarri digitalean entregatu behar dira, anonimotasunean. Gutunazal txikiago batean sartu beharko dira egilearen datuak. 200 euroko saria dago jokoan. Lanak eskura edo postaz entregatu daitezke Biluzik-en (Biluzik Sexologia Zerbitzua Elgoibarko Kultur Etxea). Informazio gehiago: 943 74 14 61 edo biluzikzerbitzua@yahoo.es helbidean.

### Gurutze Gorria

Gipuzkoako Gurutze Gorriak bazkide kanpaina jarri du martxan, bazkide berriak lortzeko. Jasotako dirua Gipuzkoarako eta, baita ere, Elgoibarko Gurutze Gorriarako izango da. Koldo Lizarralde Elgoibarko Gurutze Gorriko presidentek jakinarazi digunez, telefonoz deitzen dute bazkideak lortzeko, eta baiezkoa esaten dietenei kontu korrontea eskatzen diete. Koldok argi utzi nahi du telefono bidezko timo bat: "jendea beldurtu egiten da, baina kanpaina serioa egiten ari gara".

### Gure Bide 2005

Gure Bideko zuzendaritza berria: Julian Azkue (presidentea), Kastor Otaegi (idazkaria), Javier Estarta (kontablea), Juan Luis Apellaniz (diruzaina), Javier Garate, Fidel Gomez, Jose Ramon Oiarzabal, Jesus Maria Aizpurua (likidazioak), Tomas Olasolo, Manuel Jurado (erosketak), Jose Zubizarreta, Jesus Barrutia, Miguel Anjel Hernandez (biltegia), Julian Agirregomezkorta, Ekaitz Gomez (manteinua).

## Europako Konstituzioaren kontrako elgoibartarrak



Otsailaren 5ean bildu ziren Plaza Handian Europako Konstituzioaren kontrako elgoibartarrak. Beraien arrazoiak irakuri eta beste Europa bat nahi dutela aldarikatu zuten: "Guk nahi dugun Europa gizartekoia eta demokratikoa da, inperialismoaren eta

arrazismoaren aurkakoa, bakearen aldekoa, elkartasunean eta justizia sozialean oinarritua".

Bihar, bestalde, manifestazioa izango da Bilbon. Autobusa Plaza Handitik aterako da arratsaldeko 17:00etan.

# Inkesta

Cannabisaren erabilera terapeutikoa onartu dute Kataluinian

## Kalamuaren erabilera terapeutikoaren inguruan zein da zure iritzia?

**CELIA BARANDELA**

Botikaria

41 urte



“Oso ondo. Sendagileak kontrolatzen duen bitartean, primeran. Minaren aurkako sendagari oso ona da, eta bigarren efektuak nahiko arinak dira.”

**ARANTZAZU ALDAZABAL**

Administraria

42 urte



“Ondo ikusten dut. Minaren aurka ematen dituzten antibiotiko legalak ere azken finean drogak dira eta cannabisak eragin kaltegarri gutxiago ditu.”

**OIER URIARTE**

Ingeniaria

24 urte



“Ondo, gaixotasun mingarriak dituztenentzako onuragarria da. Familian badugu honelako kasu bat, eta berarentzat egokia izan daitekeela uste dut.”

**LUISA MARQUEZ**

Dependienta

32 urte



“Ondo, sendagileak gomendatzen badu, gaixoaren hoberako izango da. Beti ere kontrolatuta egon beharko litzateke. Toki guztietan saltzen hasi beharko lirateke.”

## [ BAI ala EZ ]

Duela 400 urte argitaratu zen On Kixote.  
Irakurrita al daukazu?

**BAI %10**

**EZ %90**

“Txikitan irakurri nuen. Ez zen eleberr osoa, bertsio laburtua baizik. Gero marrazki bizidunak atara zituzten eta haiak ere gustura ikusi nituen. Hala ere, garai hartan gehiago gustatzen zitzaizkidan Los Cinco, Los Tres Investigadores eta Agatha Christie-ren liburuak.”

“Ez, baina irakurtzeko asmoa dut. Izan ere, aurten erosi dut RAEren edizioa 9 euro eskasen truke. Eta gero liburuak garesti daudela! Hori, irakurtzen ez debenen aitzakia izango da, edo 24 eurotik gorako BEST-SELLER-ak bakarrik irakurtzen dituztenek esango dute.”

Datorren asterako....

**Otsailak 14.**

**Ba a duzu ohiturarik San Balendin eguna ospatzeko?**

Erantzunak: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com) edo Barreneko postontzian.

## Pilar Ikastetxean bakearen eguna ospatu zuten

**P**ilar Ikastetxeko ikasle, irakasle eta gurasoek Bakearen Eguna ospatu zuten joan zen urtarilaren 31n.



### Bi ekintza nagusi

Bakearen Eguna ospatzeko bi ekintza nagusi antolatu ziren. Hasteko, bakearen alde otoitz egin eta abestu zuten bertan bildu ziren guztiak eta, ondoren, solidaritate-merienda egin zuten, hau da, denen artean etxetik eramandako tortila pintxoak eta edari freskagarriak euro banaren truke saldu zituzten.

260 euro bildu ziren guztira eta Gobernu Kanpoko bi erakunderen artean banatu da: zati bat Proyde-Proegak Argentinako eskola bateko ogi

labeak martxan jartzeko, eta beste zatia Alboan Erakundeak Asiako Tsunamiak eragindako kalteak konpontzen laguntzeko. Pilar ikastetxekoek jakinarazi digutenez, partaidetza handia izan zen, eta arratsalde oso polita pasatu omen zuten anai giroan.

## [ IKAS KONTUAK ]

### Elgoibar Ikastolako mendi irteerak

Urtero bezala, aurtengo ikasturtean ere, Elgoibar Ikastolako mendi irteerak antolatu ditu bertako ikasle, irakasle eta gurasoentzat. LHtik, DBH 4. mailara arteko ikasleentzat izango dira irteera hauek.

Lehenengoa urtarilaren 30ean egin zuten Urnabitza. Hurrengoa, datorren otsailaren 20an izango da Egoarbitza (Elgeta).

Gainontzeko mendi irteerak hilabetean behin egingo dituzte: Martxoaren 13an Amora joango dira (Mutriku), apirilaren 17an Izaspira (Zumarraga), maiatzaren 15ean Erlora (Aittola), eta azkena ekainaren 12an egingo dute Saibira (Urkiola).



## Herri Eskolako obrak inauguratu zituzten

Elgoibarko Herri Eskolan berrikuntzak egin dituzte, eta joan zen astelehenean, urtarilaren 31n, egin zuten ikastetxe berrituaren inaugurazioa. Gela berriak, psikomotrizitate gela bat eta ezinduentzako igogailua jartzea izan dira berrikuntza nagusiak.

Ekitaldi honetan ikastetxeko ikasleen gurasoak, bertako irakasleak, Atxutxiamaiak Aisialdi Taldeko kideak, Institutuko ordezkariak eta berritze guneko arduradunak egon ziren. Inaugurazioaren ostean luntxa izan zen.

## [ SANTA AGEDA ]



### Elgoibarko ikastetxeek Santa Ageda bezpera eguna ospatu zuten

Ohitura zaharrari jarraituz, Santa Ageda bezpera eguna ospatu zuten Herri Eskola, Pilar eta Ikastolako ikasleek. Herri Eskolakoek Urсандiko parkean haur eskolako umeei abestu zieten. Pilar Ikastetxekoak patioan eskaini zuten kantaldia, eta Ikastolakoak kalejira egin zuten Plaza Handiraino. Eztariz sano daudela demostratu zuten ikasleek, eta koplak zaharrak herri osoan entzun ahal izan genituen.



## KILI KLIK

### Herriko Enparantza oinezkoentzat

Duela pare bat hilabete erabaki zuen Mendaroko Udalak asteburuetan herriko enparantza ibilgailuentzat ixtea. Ostiral arratsaldetik hasita, astelehen goizera arte itxita egoten da. Ingurune hau da Mendaron jende gehien ibiltzen den tokia, eta haurrek lasai jolastu ahal izateko proba egitea erabaki zuten. Momentuz badirudi gauzak ondo doazela, eta aurrerantzean ere berdin mantenduko dute.



## Mendaroko Musika Eskolarentzako 2.500 euro bildu ziren Santa Eskean



Egaña

**B**i taldetan banatuta, 30 lagun inguru atera ziren Santa Ageda Egunean Mendaroko kale, auzo eta baserrietan koplak kantatzera. Aipatzekoa da talde honetan hainbat emakume ere atera zirela. Guztira 2.500 euro bildu zituzten, eta aurtengoan Musika Eskolari emango diote.

Bestalde, San Jose Ikastolako umeak otsailaren 4an, Santa Ageda Bezpera egunean egin zuten kalejira. Mendaroko Ospitalean abestu zituzten lehenengo koplak, eta ondoren, kalez kale aritu ziren, bazter guztiak kantuan jarri. Kopla zaharrak dioen bezala, eztaiz sano daudela erakutsi zuten.

### "Mintzalaguna" ekimena

"In leike"k, Udalak eta AEK Euskaltegiak "Mintzalaguna" ekimena jarri dute martxan, euskara ikasle eta euskaldunberriek kalean euskara mintzatu dezaten. Horretarako ezinbestekoa da euskaldun zaharren kolaborazioa kalean, kafetegian edo beraiek aukeratzen duten tokian ordubetez euskaltegiko ikasleekin hitz egiteko. Informazio gehiago Udaletxean: 943033282 (Nerea)

### Aizkorrirako irteera

"In Leike"-k antolatuta, Aizkorrirako mendi irteera izango da igandean, otsailaren 13an. Irteera goizeko 8:30ean izango da tren geltokian. Interesatuak mendirako jantzi egokia eta norbere jatekoa eraman beharko dute.

### "Pakitarentzat bakarrik" antzerkia

Udaletxeko Udaltzatza aretoan "Pakitarentzat bakarrik" antzerkia izango da otsailaren 13an, arratsaldeko 18:00etan. Ordubeteko emanaldia izango da euskaraz.

## Mendaroarrak ihauterietan



Mendaron ere ihauteriak ospatu ziren joan zen asteburuan. Larunbat arratsaldean Goñati Frontoian izan zen zita. Apika taldearen antzerkia, Arno Guraso Elkarteak antolatutako txokolate jana eta karaokea izan ziren bertan. Umore onean joan zen arratsaldea. Gavean, ordea, mendaroar ugari joan zen Elgoibarrera. Argazkian ageri diren "mendarina" hauek aurkitu ditugu Mendaroko ordezkari moduan. Beren mozorroak argi erakusten zuen ez zirela Valentiako mandarinak.



**EDU GOMEZ** Modeloa

## «Mister Euskadira aurkezteko gogorrena depilatzea izan zen»

*Ilehoria, begi urdinak, 184 zentimetroko altuera, 79 kilo... Mister Euskadi izan nahi du. Mendaron bizi den 27 urteko elgoibartar honek bigarren urtez parte hartuko du Txapelketan, otsailaren 17an, Barakaldo Antzokian (Barakaldo). Lanbidez igeltseroa, gogoko du "farandula"ren mundua, Operación Triunfon parte hartzeko Kasting-etara ere aurkeztu baitzen.*

### • Nola animatu zinen iaz Mister Euskadi Lehiaketan parte hartzera?

Nagore Perez ezagutzen nuen eta mundu hau probatzea gustatuko litzaidakeela aipatu nion, saiatu ez izanaren penarekin ez geratzeko. "Book" bat egin eta First Model agentziara deitzeko esan zidan. Argazkiak erakutsi nizkienean, Mister Euskadira aurkezteka zela egin zezaketen gauza bakarra aipatu zidaten. Haluzinatuta geratu arren, apuntatzeko esan nien.

### • Zenbat lagun aurkeztu zineten iaz?

15 lagun, 4 gipuzkoar, 9 bizkaitar eta 2 arabar. Nahiko ondo prestatutako jendea ikusi nuen. Gero Mister Espainia izatera iritsi zen bizkaitar batek irabazi zuen.

### • Guapotzat al duzu zure burua?

Ez dut uste zatarra naizenik. Mister ateratzeko aukerarik ez dudala uste dut, baina nork daki? Lehiatzea baino ongi pasatzea eta jende berria ezagutzea da nire helburua. Lotsatia naizen arren, kasting guztietara aurkeztzen naiz: Eibarko dendarien desfilea, Operación Triunfo...

### • Operación Triunfo?

Bai, abestea izugarri gustatzen zait eta Operación Triunfo saioko 2. eta 3. edizioetara aurkeztu nintzen. Lehen aldian Oviedon egin nuen kasting-a, baina abesteko orduan, gorputz guztia dardarka hasi zitzaidan. Bestalde,

kontratu bat sinatu arazi ziguten aukeratuak izanez gero, beraiek nahi dutena egiteko eta ia 200 galderako test bat egin arazi ziguten, gehienak elkarbizitzaren ingurukoak. Hirugarren ediziorako hiru abestirekin bideo bat grabatu eta bidaltzea eskatzen zuten. Ez ninduten hartu.

### • Gorputzeko zein ataletaz zaude harro?

Begietaz eta irribarrez. Itxura fisikoari ematen diote lehentasuna gisa honetako lehiaketetan, baina grazia eta mugitzeko trebetasuna aintzat hartzen dituzte.

### • Nolakoak izaten dira txapelketok?

Hiru bider desfilatzen dugu, hauetako bat bainujantzian, eta gero epaimahaiokoen banan banan elkarrizketatzen gaituzte. Niretzako okerrera depilatu beharra izan zen. Bularra eta zangoak depilatzen izugarri sufritu nuen.

### • Nolabait prestatu al zara txapelketara aurkezteko?

Ez gehiegi. Noizean behin abdominal batzuk eta kitteda! Kolore pixka bat hartzeko solarium saio batzuk ere hartu ditut, iaz besteek egiten dutela ohartu bainintzen.

### • Bide honetatik jarraitzeko asmorik?

Bai, baina oso zaila da honetatik bizitzea. Mundu honetan gaur goian zaude eta bihar, behean. Mutilentzat, gainera, lan gutxiago dago.



«O.T.ko kastingean gorputza dardarka hasi zitzaidan»



# GAZTIA NAIZ

Gazte tertulia...

## MIR MEDIKU

KANARIAR IRLETAN ASTEBETEKO OPORRAK PASATZETIK ITZULI OSTEAN HARRAPATU DITUGU ARIANNE PEÑARANDA, NEREA EGAÑA ETA AMAIA JAUREGI. KOADRILA BEREKO MEDIKUNTZA IKASLEAK DIRA HIRURAK ETA AZKEN ZAZPI HILABETEK MIR AZTERKETA PRESTATZEN PASA DITUZTE OVIEDON. URTARRILAREN 22AN EGIN ZUTEN AZTERKETA ERABAKIGARRIA BERTAN. ORAINDIK EZ DUTE EMAITZEN BERRI, BAINA ATERAKO DUTEN POSTUAREN ARABERA LEHENTASUNA EDUKIKO DUTE ESPEZIALITATE BAT EDO BESTE AUKERATZEKO. MEDIKU IZATEKO JARRAITU DUTEN BIDE GOGORRAZ ETA FALTA ZAIENAZ BERBA EGIN DUGU.

**Urtarrilaren 22an egin zenuten MIR izateko azterketa. Zer da MIR-a?**

**Amaia:** Bameko Mediku Egoiliar (Medico Interno Residente, erderaz) esan nahi du MIRek. Mediku Lizentziatura sei urtetan ateratzen da eta horren ostean Bameko Mediku izateko gainditu beharreko azterketa litzateke MIR-a.

**Ariane:** Egun MIR gabe aukera gutxi daukazazu: ejerzitoan eta medikuntza pribatuan bakarrik lan egin daiteke. Baina medikuntza pribatuan zaila da inork hartzea, beraiek formatu baino nahiago dutelako Gizarte Segurutzan formatutako medikuak hartzea. Beste aukera bat atzerrira joatea da, ez baitute Mir-ik eskatzen, baina itzultzerakoan gerta daiteke ikasitakoa ez konbalidatzea.

**Nolakoa azterketa izan zen?**

**Nerea:** Test erako bost orduko azterketa izaten da. Guztira 260 galdera, bakoitza 5 aukerarekin. Azterketak %75a balio du eta gainontzeko %25a aurreko sei urtetako espedienteak. Medikuntza fakultatea

daukaten komunitate guztietan egiten da MIR azterketa egun eta ordu berean. Euskal Herrian leioan egiten da, baina guk Oviedon egin dugu. Oviedon 1.400 lagunetik gora izango ginen, baina 8.000 inguru Espainia osoan.

**Zergatik Oviedon?**

**Ariane:** Errendimendu altuko akademia bat dago bertan, oso gogorra eta famatua. Bertara doazen ikasleek emaitza oso onak ateratzen dituzte. Etxean nire kontura ikasteko gai ez nintzela ikusi nuen.

Norbait behar nuen egunero egunero ikastera behartuko ninduen.

**Amaia:** Hango giroa ikasteko aproposena da, gure inguruko denak egoera berdinean baigeunden. Uda ere han igaro genuen eta ez gara ia ohartu.

**Nerea:** Oso ondo antolatuta daukate dena. Hasieratik bukaerara zer egin eta ikasi esaten dizute eta grafiko eta portzentaien bitartez azaltzen dute norberaren bilakaera, zertan huts egiten duzun, e.a. Gabinete psikologiko bat eta tutore bat ere bageneuzkan

**Zenbat denbora egin duzue prestatzen?**

**Amaia:** Maitzean bukatu genuen lizentziatura eta uztailean hasi ginen MIR-erako ikasten. Azken 7 hilabeteak Oviedon egin ditugu eta urtarrilaren 22an egin genuen azterketa.

**Nolakoa zen egun normal bat?**

**Nerea:** Oso goiz jaiki, 8 orduz ikasi, bazkaldu, 3 orduko klaseak, 2 orduz test-ak, ikasi eta ohera. Zapatuero azterketaren 4 orduko simulakroa eginez. Igandeak sakratuak ziren, lo egiteko, pelikula bat



“Batzuk etxera itzuli ziren antsietateak jota”

AMAIA

“Asko eskertu dut Oviedon lagunekin egotea”

ARIANE

“Inoiz ez dut horrenbeste desiratu igandea iristea”

NEREA



# BARREN

## IZATEKO ERREBALIDA

ikusi... inoiz ez dut horrenbeste desiratu igandea iristea.

**Zer izan da zailena?**

**Arianne:** Etxetik kanpo amagabe eta lagun gabe egotea.

**Nerea:** Asti liberrik ez edukitzea, ezta paseo bat emateko ere. Eta jarrita horrenbeste ordu ematea.

**Amia:** Goizetan jaikitzea. Presio psikologikoa nabaritu dugu, baina guk nahiko ondo eraman dugu. Beste batzuk etxera itzuli ziren ezin aguantatuta edo antsietateak jota. Bisita asko jasotzeko zortea izan dugu, erresidentziako bisitatuenak izan gara.

**Lagundu al dizue koadrilakoak izateak?**

**Arianne:** Asko eskertu dut Oviedon lagunekin egon izana, elkarri laguntza eskatzeko konfidantza geneukalako. Batek egun txarra zeukanean, besteek animoak ematen zizkieten, segapotoke mensaje asko bidali dizkiogu elkari.

**Oviedon ezagunak izango zarete MIR ikasleak, ezta?**

**Arianne:** Bai, kale garbitzaileek ere agurtzen gintuzten-eta! "Hola doctoras, ¿que os toca hoy, habeis hecho el

simulacro?" Espainia guztiko ikasleak joaten dira Oviedora, kanariarrak, andaluziarrak eta baita hegoamerikar mordo ere.

**Amia:** Gure etxe azpiko ileapaindegian MIR ilemozketa egiten zuten!

**Zenbat lagunentzako plazak daude?**

**Nerea:** Plazak egon badaude, 7.000 inguru, baina zuk nahi duzun horretan aritzeko aurreneko postuetan geratzea da zaila, azterketa hobekien egiten dutenek baitute aukeratzeko lehenasuna.

Hortaz, askok berriz egiten dute MIR-a, nahi adina aldiz egin baidaiteke.

**Arianne:** 3 postu tipologia daude: medikuak, kirurgikoak eta mediku-kirurgikoak. Bizkorren gastatzen direnak kirurgikoak izaten dira. Famili Mediku izateko egoten dira plazarik gehien, baina gehienek ez dute hau nahi izaten. MIR-eko azterketaren emaitzak ateratzen direnean txanda ematen dizute eta geratzen diren plazen artean aukeratu behar da.

**Zer egingo duzue emaitzak ateratzen direnean?**

**Arianne:** Hirurok nahiko argi daukagu

ez dugula berriz hortik pasa nahi. Ni geratzen dena hartzeko prest nago. Berriz MIR-a egin behar badut, ordea, egingo dut eta ez naiz ez lehena ezta azkena ere izango.

**Nerea:** Behin MIR-a aterata ospitaletan formatzen gaituzte guk aukeratutako espezialitatean. 4 eta 5 urte bitartean irauten du formakuntzak. Gure soldata edukiko genuke eta sendagileekin batera lan egiten dugu.

**Pasatakoak pasa ostean, gomendatuko al zenikete norbaiti medikuntza ikasten hastea. Zer eduki behar du argi?**

**Arianne:** Gustatu egin behar zaizu eta argi eduki ordu mordo sartu beharko dituzula jarrita ikasten, karrera luzea baita, baina hori eginez gero ateratzeko modukoa da.

**Nerea:** Sei urtean lasai atera leike. Guk amaitu dugu eta gure adineko jendea oraindik ikasten ari da karrera motzagoak eduki arren.

**Amia:** Bestalde, gu baino nagusiagoak diren medikuntza ikasle elgoibartarrak eskertu nahi genituzke, eman dizkiguten animu, laguntza eta aholkuengatik.



## PATXI PEREZ AKTOREA

### «Adimendun umorea gustatzen zait»



*Patxi Perezen (Irun, 1968) aurpegia ezaguna egingo zaizue "Pasalo" edo "Algo pasa con Lopez" telebista saioetan ari baita, baina gaur, hilak 11, zuzenean ikusteko aukera dugu Herriko Antzokian (22:15). "Perez y Fernandez" antzezlanak eskainiko du bertan. Bera Perez da, noski.*

👤 **Salduiguzu Perez eta Fernandez antzezlanak.**

Umorea nagusi den ikuskizun dibertigarria da. Perez eta Fernandez bigarren eskuko gauzak enkantean jartzen dituen biltegiko biltegiainak dira. Bizimodu arrunta daramaten pertsonaia sinpleak dira, baina istripu batek eguneroko errutina hautsiko du eta guk egoera horren parodia egiten dugu. Ikuskizuneko publikoa, gainera, enkantera datorren jendea da guretzat.

👤 **Zein da gustatzen zaizun umore modua edo estiloa?**

Adimendun umorea gustatzen zait eta ez estereotipo eta karikaturan oinarritutakoa. Ez dadila dohaneko umorea izan, umoristak eta ikusleak esfortzua egitea eskatzen duen umorea baizik. Nolabait azaltzearen, lehen erreakzioa barre algara izan dadila, umore kolpeak eragina izan duelako, baina erreflexioa eragin behar du, zergatik egin dut barre?, alegia.

👤 **Barre eragitea negar eragitea baino zailagoa ei da.**

Bizi ditugun garai hauetan telebista edo irratia piztea besterik ez dago barre egiteko. Niri erraztasun handiarekin ateratzen zait barrea, batzuetan errazegi. Bizi garen testuinguru politiko eta sozialean beharrezkoa da barre egitea eta aldi berean, errealitatearekin distantzia hartzea, asuntua konplikatua baitago. Argigune eta lainoekin ikusten dut egoera, baina laino gehiagorekin.

👤 **Euskaldunok ba al dakigu gure buruaz barre egiten?**

Betidanik jakin izan dugu, baina etxebarruko kontua zen. Azken aldian gehiago ausartzen gara kanporatzen. Dena dela, euskaldunak betidanik izan du umore oso propioa.

👤 **Gustuko umorista bat?**

Gilak eginiko umorea erreferente bat izan da niretzat. Mundu interesgarria planteatzen zuela iruditzen zait. Umore zuzena eta basatia zuen, oso berezkoa.

👤 **Gorriak pasa arazi zizkizun...**

La Gran Evasion saioan nengoela, Bibiana Fernandez zen gonbidatua. Pablo Sebastian, Paradaren pianistarena egiten nuen nik eta publikoak gisa horretan jantzita ikusi ninduean arre-taren zentrua bilakatu eta nolabait Soberaren elkarrizketa boikoteatu nuen. Behin eta beriz errepikatzen zidaten 'pinganillo'tik ezer ez egiteko, publikoak elkarrizketaren haria galtzen zuela-eta. 'Motel, eutsiak, hau ez duk eta hire momentua' esaten nion nire buruari. Egia esan ispilura begiratuta niri ere barregura ematen zidan nire itxurak.

👤 **Bote prontoan, aukeratu monologo baterako gaia?**

Tripartittoa, baina Ibarretxe planarekin zerkusirik izan gabe, orokorrean.

👤 **Teloia igo eta 10 pertsona bakarrik daude antzokian...**

Emanaldiarekin jarraituko nuke, baina arima oinetan dudala. Horrelakoetan, aktore gisa zer egiten ari naizen galde-tzen diot nire buruari. Gogorra da.

«Tripartitotoari buruzko monologo bat egingo nuke, umore ikutuaz»

## SANTA ESKEA

### Santa Agedaren omenezko koplak baserrietan eta kalean

#### Koplatan baseriz-berri

Elgoibarko Izarrak antolatuta, 23 lagun atera ziren Santa Ageda bezpera egunean baseriz-baserri koplak kantatzera. Bi taldetan banatuta, 59 baserri bisitatu zituzten. San Migeleko soziedadean afaldu ostean "datorren urtera arte" esanez agurru ziren..



#### Korrika 14ren aurkezpena eta bideo emanaldia

Datorren hilaren 17an, ostegunean, Korrika 14ren bideo emanaldia eta aurkezpena egingo dira Kultur Etxean, arratsaldeko 19:30etik aurrera. Elgoibarko AEK euskaltegiak herritar guztiak gonbidatu nahi ditu ekitaldi horretara joateko eta baita ere, bertan zehaztuko diren antolaketa lanetan parte hartzeko.

Bestalde, otsailaren 19an, larunbatean, Korrika 14ren aldeko materiala saltzeko mahaiak jarriko dira goizean Plaza Handian.

#### Udal Musika Bandaren kontzertua

Udal Musika Bandak kontzertua eskainiko du datorren igandean, otsailaren 13an, Herriko Antzokian. Eguerdiko 12:30ean hasiko da emanaldia, eta sei musika pieza eskainiko dituzte: "Islas Canarias" (J.M. Taridas), "Carpenters in concert" (Pi Scheffer), "Blue Beguine" (G. Gisborne), "Las Golondrinas" (J.M. Usandizaga), "Chanson Hindoue" (R. Korsakow) eta "Rock N' Roll hall of fame" (P. Jennings).

#### Koplatan kalez-kale

Etxegiña Taldean 60 lagun inguru atera ziren otsailaren 5ean kalez-kale. Bi taldetan banatuta, Jesus Urizar eta Kepa Urain izan ziren koplariak. 1.070 euro bildu zituzten Karitas-i emateko. Bazkal ostean Kepa Uraini oroigarria eman zioten 25 urtez koplari aritzeagatik.







**Pintxoetan aukera zabala**

P. Muguruza, 7 Tel: 943 74 16 76

# SAHATZU

## HARATEGIA

ELGOIBARKO ETA INGURUKO BASERRIETAKO BEHI OKELA DAUKAGU



Santa Ana, 5 - Tel. 943 742 048 - Elgoibar

**IBON SAEZ DE VITERI** SNOW BOARD ZALEA

## «Asteburuero eskiatzera joateko mendia eta elurra gustatzea ezinbestekoa da»



*17 urterekin hasi zen Ibon Saez de Viteri elgoibartarra eskiatzen. Orduan noizean behin joaten zen lagun baten gurasoekin. Gaur egun, eski denboraldi guztirako etxe bat alokatzen du lagunekin eta asteburuero joaten da frantziar pirinioetara. Essan digunez, snow-a probatu zuenetik, ez ditu eskiak gehiago jantzi.*

### 🏔️ Noiz hasi zinen eskiatzen?

Lehenengo aldiz 17 urterekin joan nintzen. Gero, lagun baten gurasoekin joaten nintzen San Antonetan. 20 urterekin hasi ginen eski denboraldi guztirako joaten. Koadrilako lagun batzuen artean etxe bat alokatzen dugu, eta asteburuero joaten gara Luz Ardidenara.

### 🏔️ Asteburuero plan bera egitea ez al da aspergarria?

Mendia eta elurra gustatzea ezinbestekoa da. Bi gauza horiek gustatuz gero, ez dago arazorik. Egia da, beti toki berera joatea azkenean aspergarria dela, baina gu saiatzen gara urtean bi asteburu badi- ra ere, tokiz aldatzen. Etxea eta forfai- ta ordainduta dauzkagunez, ezin gara aste- buruero tokiz aldatzen ibili, baina batzu- tan joaten gara Candanchu, Formigal edo La Mongie eta Cautterets aldera.

### 🏔️ Eskiak ala snow-a nahiago?

Snowa, dudarik gabe. Hasieran eskiak probatu nituen, baina oso zaila egiten zitzaidan bi elementu kontrolatzea,

bakoitza alde batera joaten zen. Snowarekin dena bat zara, zu eta tabla. Hasieran demaseko kolpeak hartzen dira, baina errazagoa da, gainera gutxi jakin arren, edozein tokitatik jaitsi zaitezke, eta eskiekin asko ibilli behar da ikasteko.

«Gutxi jakin arren, snowa- rekin edozein tokitatik jaitsi zaitezke»

### 🏔️ Ba al dago pikerik eskiatzaile eta snow praktikatzaileen artean?

Bai, apur bat badago, baina gazteen artean ez hainbeste. Nire ustez gehiago da jende nagusiaren artean. Betidanik eskiekin ibili den jendearengan. Duela

bost urte, gu hasi ginenean ez zen hainbeste jende ibiltzen snowarekin, baina gaur egun gazte gehienak tablaekin ibiltzen dira. Eta eskiatzen hasten diren gazteak, denak snowarekin hasten dira. Eskiekin ibiltzen diren gazteak, txikitatik hasi direnak dira.

### 🏔️ Kirol garestia al da eskia?

Ez zait iruditzen hain garestia denik. Beharbada asteburuero joatea ez dago jende guztiaren esku, baina noizean behin lanean dagoen edonor joan daiteke. Guri aurten etxea alokatzea gehiago kostatu zaigu. Frantzia merkeagoa da, baina hasi dira prezioak igotzen.

Hala ere, askotan asteburu- ra Elgoibarren pasatzea garestiagoa ateratzen da.

### 🏔️ Zein da gehien gustatzen zaizun eski estazioa?

Luz Ardidenen ibili nahiz gehien, eta asko gustatzen zait. Candanchun eguraldi txarra egin zigun, eta ez dut oso ondo eza- gutzen.

REALEKO JOKALARIEKIN SOLASEAN

## Riesgo eta Zubiaurre Institutuan



Ikasleek egindako galderak fin erantzun zituzten.

**A**sier Riesgo debarra eta Iban Zubiaurre mendararra, Elgoibar BH Institutura itzuli ziren joan zen urtarrilaren 24an. Bertako ikasle ohiak izanik, gaur egun Realeko jokalariek profesional modura daukaten bizimodua azaldu zieten DBHko ikasleei.

Entzuleek galdera mordoa egin zizkieten, maila profesional eta pertsonalean. Realak egun bizi duen egoera onena izan ez arren, bi jokalariek

euren gaitasuna frogatzeko aukera izaten ari dira aurtengo denboraldian. Bata titularra da atezain postuan eta mendarorrek Lopez Rekarte kapitaina ordezkatu du zenbait partidutan eskuin hegalekoan.

Solasaldiaren amaieran, pin-ak, pegatinak eta beraiak sinatutako argazki mordoa banatu zizkieten entzuleei.

Giro onean burutu zen solasaldia, eta ikasle guztiak oso pozik gelditu ziren.



### Mintxetako taberna

Elgoibarko Udal kirol Patronatuak jakinarazten du otsailaren 3ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu direla Mintxetako Kirol-Komplexuan dagoen tabernaren

ustiaketaren ardura hartzeko baldintzak. Interesatuek Olaizaga kiroldegian har ditzakete ustiaketaren inguruko baldintzak. Proposamenak aurkezteko epea otsailaren 18an, bukatzen da.

## [ EMAITZAK ]

### FUTBOLA

A. Vitoria 2 - Haundi 1 - (3. maila)

Elgoibar 0 - Baracaldo 1 (Jub.)

### ARETO FUTBOLA

Beti Arin 1 - Kenci Elg. 2 (Nazional B)

### PILOTA

#### Euskal Herriko Liga

Lagunak 22 - Lemoa 21 (Jub. binaka)

Lagunak 8 - Latasa 22 (Jub. banaka)

Hemani 30 - Lagunak 21 (Jub. neska, palaz)

#### Udaberri Txapelketa

Lagunak 22 - Lazkao 11 (Nag.)

### ESKUBALOIA

Umobitza Sanlo 25 - Arrasate 14 (Inf. mut.)

Zarauz 27 - Pagoaga Sanlo 14 (Kad. nes.)

Zarauz 30 - Cometel Sanlo 12 (Jub. nes.)

## [ AGENDA ]

### FUTBOLA, Mintxetan

Zapatua, 12

12:30 Elgoibar - Añorga (Kad.)

16:30 Haundi - San Pedro (3. maila)

18:30 Elgoibar - Amaikak Bat (1. erreg.)

Domekia, 13

10:30 Elgoibar - Aretxabaleta (Inf. B)

12:15 Elgoibar - Eibartarrak (Neska)

### ESKU PILOTA, Ikastolako frontoian

#### Euskal Herriko Liga

Barixakua, 11

22:00 Lagunak - Argia (Jub. banaka)

#### Udaberri Txapelketa

Barixakua, 11

22:45 Lagunak - Ilunpe (Nag.)

### ARETO FUTBOLA, Kiroldegian

Barixakua, 11

22:00 Lanbroa - Larramendi (Jub.)

Zapatua, 12

13:00 Toletxe - Aloña Mendi (Jub.)

16:00 Kenci Elg - Ituriondo Izkara (Nazional B)

### ESKUBALOIA, Kiroldegian

Zapatua, 12

17:30 Pagoaga Sanlo - Eharialde (Kad. neska)

19:00 Cometel - Eharialde (Jub. neska)

Domekia, 13

9:00 Sanlo - Aloña Mendi (Inf. neska)

10:30 Pneumax Sanlo - Aitxuri (Jub. mut.)



- Eibarko enpresak **elektrikari laguntzailea** behar du. Erref. 162005000294
- Sorraluzeko enpresak **etxez-etxeko banatzailea** behar du. Erref. 162005001149
- Arrasateko enpresak **merkataritza-ko agentea** behar du. Erref. 16200500 0720
- Zumaiako enpresak **soldadorea** behar du. Erref. 162004010231
- Zumaiako enpresak **galdaragilea** behar du. Erref. 162004010232
- Mutrikuko enpresak **kutxazaina** behar du. Erref. 162005000914
- Eibarko enpresak **tomurako langilea** behar du. Erref. 162005000918
- Bergarako enpresak **idazkaria** behar du. Erref. 162005000922
- Eibarko enpresak **bidaiararen agentea** behar du. Erref. 162005000898
- Elgoibarko enpresak **metalerako langileak** behar ditu. Erref. 162005000801
- Arrasateko enpresak **web orrien disenatzailea** behar du. Erref. 162005000643

Hautagai moduan sartzea eskatu nahi baduzu **901222901** telefonora deitu edo 'Langai'-k Elgoibarren dituen zentru laguntzaile hauek batera deitu: Elgoibarko Institutua (Peio Juaristi) **943 74 80 19** edo IMH (Nora Ramón) **943 74 41 32** telefonora.

## [ PARTIKULARRAK ]

- † 2. hezkuntzan, 4. mailako matematika eta fisica klaseak jasoko nituzke. ☎ **629 40 32 34**
- † Ingeleseko klase partikularak ematen dira etxean. ☎ **606 73 38 50 (Carlos)**

## [ LANA ]

### ESKAERA

- † 19 urteko neska aste bukaeretan lan egiteko prest. ☎ **676 31 65 90**
- † Neska goizez Elgoibar edo Eibarren lan egiteko prest. ☎ **645 72 38 00**
- † Emakumea garbiketa lanak egin, nagusiak edo umeak zaindu, edo etxeko lanetarako prest. ☎ **620 363 824**
- † Emakumea lanerako prest. ☎ **677 05 99 99**
- † Emakumea edozein lan egiteko prest. Arratsalde, 14:30-17:00. ☎ **665 755 211**
- † Soldadorea eta 2. mailako ofiziala, Elgoibar, Eibar edo Deban lan egiteko prest. ☎ **661 225 149**
- † Emakumea garbiketa lanak egin, nagusiak edo umeak zaindu, edo etxeko lanetarako prest. ☎ **660 92 75 66**
- † Emakumea garbiketa lanak egin (tabernak, elkarteak...), edo etxeko lanetarako prest. ☎ **600 28 27 93**
- † Erizain laguntzailea gaixoak edo nagusiak zaintzeko prest. Etxean edo ospitalean, gau edo egunez. ☎ **686 226 274**
- † Emakumea garbiketa lanak egin (tabernak, elkarteak...), nagusiak edo haurrak zaintzeko prest. 10:30etik 17:30era, asteburuak barne. ☎ **618 37 91 47**
- † 37 urteko gizona baserrian lan egin, nagusiak zaindu edo beste edozein lanetarako prest. ☎ **699 71 28 97**
- † Emakumea orduka garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **665 72 20 76 / 943 53 15 76 (gavez)**

### ESKAINITZA

- † Kamareroa behar da. ☎ **943 74 10 12**
- † Mutil euskalduna behar da asteburuetan barran lan egiteko. ☎ **670 654 921**
- † Euskaraz dakien neska behar da dendan lan egiteko. ☎ **943 74 36 08**
- † Kamareroa behar da egunero lan egiteko. Kontratua eta oporrek. ☎ **652 77 82 60**
- † Neska behar da jatetxean eta barran lan egiteko. ☎ **635 75 16 42**
- † Jatetxerako sukaldaria eta kamareroa behar dira. ☎ **943 12 12 62**

## [ ETXEBIZITZAK ]

### SALMENTA

- † Atikoa salgai. Bizitzera sartzeko moduan. Sukaldea, egongela, bi logela, komuna, trastero handia eta igogailua.. ☎ **656 72 44 01**
  - † Etxea salgai erdialdean. Berritua, gas naturala, berogailua, sukaldea, trasteroa. Kanpora begira. Salneurria adosteko. ☎ **615 78 44 15**
  - † Etxea salgai Errosario kalean. Berritua, altzariekin, bizitzera sartzeko moduan. Sukaldea, egongela, 3 logela, komuna, despentsa, berogailu zentrala. Prezioa adosteko. ☎ **699 17 98 72/943 74 02 68**
  - † Etxea salgai Santa Ana kalean. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna, despentsa. Bizitzera sartzeko moduan. ☎ **636 22 31 42**
  - † Etxea salgai Basarteko lehen ilaran. 68m<sup>2</sup>. Dena kanpora. 2 logela, 2 komun, egongela, sukaldea, lehortegia eta garaiea. ☎ **687 23 58 39**
  - † Etxea salgai San Frantzisko kalean. Sukaldea, egongela, komuna, bi logela, despentsa. Eguzkitsua. Bizitzera sartzeko moduan. Prezioa adosteko. ☎ **699 29 36 13**
  - † Pisua salgai Artxeten (Inñiguez de Karkizano kalean). Berritua, altzariekin, dena kanpora begira, ganbareekin. ☎ **627 94 12 61**
  - † Etxea salgai Urasandin. 90m<sup>2</sup>. Dena kanpora begira. Terraza, 2 komun, 3 logela, egongela. ☎ **943 74 08 26**
  - † Etxe adosatua salgai. Dena berritua. 217m<sup>2</sup>. 48 milioi. ☎ **686 22 84 04**
  - † Etxea salgai Madalan. 64m<sup>2</sup>. Eraikuntza berria, bi logela, komuna, egongela, sukaldea, trasteroa eta garaiea. ☎ **677 24 39 61 (18:00etatik aurrera)**
- ### ALOKAIRUA
- † Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ **627 60 34 38 (Maria)**
  - † Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibar, Mendaro edo Eibarren. ☎ **687 05 38 11**
  - † Pisua alokatzen da Urasandin. Egongela, sukaldea, bi komun, 3 logela. ☎ **943 74 15 27**

## [ LOKALAK ]

- † Gazte koadrila batek lokala hartuko luke alokairuan. ☎ **678 118 695**

## [ SALEROSKETAK ]

- † Aspiragailu industrialra salgai. 3 motore. Berria, merkea. ☎ **615 79 50 12 (Andere)**
- † Piragua salgai kubre eta palarekin. Txaleko eta txamarra opari. ☎ **653 716 306**
- † Errepiderako bizikleta salgai. Winer, grupo campagnolo xenon. Urtebete. 400 euro. ☎ **639 312 388**
- † Hozkailu-izozkailua salgai. 1,42m alturan/0,43 zabalera. Bi ate. Egoera onean. 72 euro. ☎ **943 74 32 46**
- † Citroen C2, 1.4 autoa salgai. 2 urteko garantia. Merkea. ☎ **943 74 23 63**
- † Bikintzako kotxe silla salgai. Inglesina markakoa. (silla, grupo 0, zakuak, burbujak...) ☎ **636 12 95 43**
- † Opel Vectra 2.0, 115cv. salgai. 240.000km. Egoera onean. 2200 euro. ☎ **656 70 29 59**
- † BMW 330 D autoa salgai. Nazionala. Ondo zaindua. Beti garajean. Extra asko. ☎ **943 74 00 36/609 494 128**
- † Bi eskopeta eta 5 tiroko errepetidora salgai. ☎ **943 74 00 79**
- † 4 kaxa Veterano, 4 MG, kaxa bat Explendido, kaxa bat 103 salgai. Prezioa adosteko. ☎ **635 75 16 42**

## [ GARAJEAK ]

- † Garaje itxia salgai Madalan. 28m<sup>2</sup>. ☎ **646 50 28 66 (arratsalde)**
- † Garaje itxia salgai Urasandin. ☎ **943 74 24 06**
- † Garaje itxia salgai Ermuaranbiden. 19,90m<sup>2</sup>. ☎ **943 74 28 75**
- † Garaje itxia alokatzen da San Roken. 34m<sup>2</sup>. ☎ **943 74 17 02**

## [ BESTERIK ]

- † Zinean giltz batzuek aurkitu genituen hilaren 30ean. Udaltzaingoa daude.
- † Urtilaren 6an Trenbide eta Bernardo Ezenarro kaleen artean kamiseta temikoa galdu nuen. Urdin iluna, Helly Hansen markakoa. ☎ **610 904 371**
- † Zilar koloreko pultsera galdu dut. Balore sentimentalak du. Sarritu egingo da. ☎ **619 04 56 46 (Begoña)**
- † Erretxindin perikito batek ihes egin zuen hilaren 19an. Hankan eraztuntxo bat dauka. ☎ **943 74 25 51**
- † Taberna alokatzen da Elgoibarren. ☎ **943 74 03 92**



Jordan Ezenarro

Linazasoro7, 2. (estazio parean)  
Tel.: 653 707 837 (MENDARO)  
jurdaneze@hotmail.com

- Altzariak
- Armairuak (enpotratuak...)
- Tallak
- Erreformak
- Eskailerak
- Ateak, lehioak
- Parket-ak, tarimak...
- Egurrezko estrukturak
- Sukaldekak



Buleatu S. Coop.

Olaso industrialdea. Olasope, 66-A

Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR

**MEKANIZATUEN TAILERRA**

## [AGURRAK]



† Pilar Ikastetxeko Lehen Hezkuntzako irakasle eta ikasleen partez, zorionak **Eneko Sanz**! Egun on bat pasat!



† Pilar Ikastetxeko irakasle eta ikasleen eta etxeko partez, zorionak **Alaitz Kortaberria**, hilaren 16an 4 urte egingo dituzulako.



† Zorionak **Aitor Larrañaga** otsailaren 7an bost urte egin zenituelako. Elgoibarko familiako partez.



† Zorionak **Laura Garcia** otsailaren 3an bost urte egin zenituelako. Gurasoen partez muxu handi bat.



† Zorionak **Nagore** otsailaren 15ean bi urte egingo dituzulako. Familiako eta, bereziki, ahizpa Mirenen partez.



† Zorionak **Itakil** Gurasoen eta anaien partez.



† Zorionak **Nagore** otsailaren 6an 6 urte egin zenituelako. Familiako partez.



† Zorionak **Maialen** otsailaren 12an 8 urte egingo dituzulako. Etxeko eta, bereziki, Olatzen partez.



† Zorionak **Paul** otsailaren 12an 4 urte egingo dituzulako. Familiako partez muxu handi bat.



† Zorionak **Javier** otsailaren 15ean 6 urte egingo dituzulako. Aitaxo, amatxo eta bereziki, Martinen partez.



† Zorionak **June** otsailaren 9an hilabete bat egin zenuelako. Patxo haundi bat familiako eta batez ere Naroaren partez.



† Zorionak **Oihane Urain** otsailaren 7an 3 urte egin zenituelako. Familiako partez etxeko karameloari!



† Zorionak **Jon Aranbarri** bere 7. urtebetzean. Familiako guztien partez.

† **Etor**, zuri ongi-etori neska artera, eta **Guru** eta **Giller-i** muxu handi bat zazpi ipotxen partez.



**gazte**  
informazioa

### LANA TEKNIKARIA

Arrasateko Udalean Administrazio Orokorreko Teknikaria behar da, bitarteko erregimenean eta aldi baterako. Zuzenbideko, Politika Zientzietako, Ekonomia edo Enpresa Zientzietako lizentziatu, Merkataritzako Intendente edo Aktuario titulua. Epea: Otsailak 16. Informazio gehiago: 943 770900

### LAN POLTSA

Hondarribiko Udaletxean udaltzainen eta aparkalekuko eta OTAko zainzaileen lan-poltsa osatu nahi dute. Epea: Otsailak 14. Informazioa: 943 111211

### BEGIRALEAK

Ikastolen Elkarteak begiraleak behar ditu 2005eko uztailaren antolatuko diren euskal, ingeles eta frantses udalekuetarako. Beharrezkoa: 18 urte beteta, euskera menperatzea, begirale titulua eta hizkuntzak. Informazioa: 944354340 telefonoan.

### LEHIAKETAK

#### FILM LABURRAK

Caja Vital Kutxa Fundazioak deitua, Euskal Herrian egindako film labur onena sarituko dute. Saria: 3,000 euro. Epea: otsailak 17. Informazioa: www.2.cajavital.es

### LITERATURA

Donostiako Deustuko Unibertsitateak X. Literatur Lehiaketa antolatu du. Modalitateak: Kontakizuna eta Poesia. Euskaraz edo gazteleraz idatziak egon ahal dira eta gaia librea da. Epea: Maiatzak 6. Informazioa: www.deusto.es

### ARGAZKILARITZA ETA POESIA

Lora del Rio-ko Udala (Sevilla). Nahi duten artista guztiek har dezakete parte. 300 eta 900 euro bitarteko sariak. Epea: otsailak 25. Informazioa: 95 580 13 31 telefono zenbakian.

### EKINTZAK ANTZERKI JARDUNALDIAK

Naruzko Zezen. Eibarko Antzerki Jardunaldiak 2005. Otsailaren 4tik martxoaren 14ra. Programazioa: www.eibarres.net web orrian.

### ELGOIBARKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA

Kultur Etxean. Bigarren solairuan.  
e-posta: elg.gzerbitzua@terra.es  
☎ 943 741 461



Astearretik-ostiralera: 16:30-19:30

# Zerbitzuak



## [ OKINDEGIA ]



13 igandea DOÑA MERCEDES



## [ FARMAZIAK ]

	EGUNEZ	GAUEZ	KANPOKO FARMAZIAK
11	Bidasolo	Bidasolo	IBÁÑEZ
12	Etxeberria	Etxeberria	Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 943 75 16 38
13	Etxeberria (Santa Ana)	Etxeberria	FERNANDEZ Herriko enparantza 4, Garagarza. Tel: 943 75 61 42
14	Fernandez	Fernandez	ZABALETA
15	Yudego	Yudego	Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 943 75 13 84
16	Zabaleta	Zabaleta	
17	Etxeberria (Errosario)	Etxeberria	
18	Ibañez	Ibañez	



## [ TELEFONOAK ]

OSASUNA	BESTELAKOAK
Anbulatorioa 943 03 26 10	Elgoibarko Izarra 943 74 16 26
Larrialdiak 943 46 11 11	Kiroldegia 943 74 44 15
Planning-a 943 74 29 50	Kontsumo Bulegoa 943 74 30 88
Alkoholiko Anonimoak 943 74 03 85	Liburutegia 943 74 35 25
D.Y.A (anbulantzia) 943 46 46 22	Musika Eskola 943 74 21 45
Gurutze Gornia 943 74 38 64	Mintxeta 943 74 43 15
Mendaroko Ospitalea 943 03 28 00	Parrokia 943 74 08 42
Odol Emaileak 943 74 39 36	Postetxea 943 74 15 47
	Gazte Informazioa 943 74 14 61
	KZ gunea 943 74 88 28
UDALA	ADINEKOEN ETXEAK
Euskara Zerbitzua 943 74 43 66	San Lazaro Egoitza 943 74 02 96
Kultura Zerbitzua 943 74 21 58	Zaharen Biltokia 943 74 05 26
Hirigintza 943 74 43 84	Eguneko Zentroa 943 74 45 65
Epaitegia 943 74 16 30	
Haziena 943 74 44 14	
Mendaroko Udala 943 03 32 82	
Ongizate zerbitzua 943 74 10 08	
Udaletxea 943 74 10 50	
Udalzaingoa 943 74 13 94	
Debemen 943 74 40 67	
GARRAIOAK	IKASTETXEAK
Eusko Trenbideak 943 74 04 42	Haur Eskola 943 74 21 41
PESA (Eibar) 902 10 12 10	HHI (EPA) 943 74 08 80
Taxi geltokia 943 74 08 98	Herri Eskola 943 74 08 79
Bizkaibus 902 222 265	LM.H. 943 74 41 32
	Institutua
	Arreiturre 943 74 80 19
	Ezenarro (Meka) 943 74 80 19
	Ikastola 943 74 44 41
	Pilar Ikastetxea 943 74 13 31



## [ AUTOBUSAK ]

**ELGOIBAR - DONOSTIA**  
**Astegunak:** 7:10, 7:40, 8:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 14:40, 15:00, 15:40, 16:00, 18:40, 19:05, 20:00, 20:40  
**Larunbatak:** 7:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 15:00, 18:40, 20:00  
**Igandek eta jaiegunak:** 9:40, 10:30, 13:40, 18:40, 20:00, 20:40  
**Pesa:** 902 10 12 10

**DONOSTIA - ELGOIBAR**  
**Astegunak:** 6:15, 7:00, 8:15, 9:30, 12:00, 12:30, 13:30, 14:30, 15:00, 17:30, 18:30, 19:30, 20:45.  
**Larunbatak:** 8:15, 12:00, 12:30, 15:00, 17:30, 19:30, 20:45  
**Igandek eta jaiegunak:** 12:30, 17:30, 19:30, 20:45.  
**PESA:** 902 10 12 10

**ELGOIBAR - MENDAROKO OSPITALA**  
**Astegunak:** 6:15, 6:40, 6:45, 7:35, 8:15, 8:45... ordu erdika. Azkena; 20:45.  
**Asteburuak eta jaiegunak:** 7:15ean hasita, orduka. Azkena; 20:15.  
**EUSKOTREN:** 943 74 04 42

**MENDAROKO OSPITALA - ELGOIBAR**  
**Astegunak:** 6:55ean hasita, ordi erdiro. Azkena 21:55.  
**Asteburu eta jaiegunak:** 7:55ean hasita, orduka. Azkena, 21:55.  
**EUSKOTREN:** 943 74 04 42

**SIGMA - ARRIAGA**  
**Astegunak:** 9:25, 11:10, 12:10, 13:10, 18:20, 19:10  
**Larunbat lanegunetan:** 8:00, 11:20, 12:20, 13:20  
**EUSKOTREN:** 943 74 04 42

**ARRIAGA - SIGMA**  
**Astegunak:** 9:55, 11:40, 12:40, 18:10, 19:00  
**Larunbat lanegunetan:** 8:10, 11:10, 12:10, 13:10  
**EUSKOTREN:** 943 74 04 42

**LARUNBAT GAUEKO ZERBITZUAK**  
**EUSKOTREN:** 943 74 04 42

**ELGOIBAR-DEBA**  
 1:05, 2:35, 4:35, 6:05

**DEBA-ELGOIBAR**  
 12:10, 1:55, 3:40, 5:25

**ELGOIBAR-EIBAR**  
 12:25, 2:10, 3:55, 5:40

**EIBAR-ELGOIBAR**  
 1:00, 2:30, 4:30, 6:00

## [ 11 BARIXAKUA ]

22:15 **ANTZERKIA**


Izenburua: "Pérez y Fernández"  
 Taldea: Zanguango Teatroa  
 Herriko Antzokian



## [ 12 ZAPATUA ]

19:00 **"YEMEN" ARGAZKI**  
**ERAKUSKETAREN**  
**INAUGURAZIOA**

Egilea: Sabin Osoro  
 Kultur Etxeko Erakusketa gelan  
 Hilaren 27ra arte  
 Antolatzailea: Ongari Elkarte





## [ 13 DOMEKIA ]

**12:30 UDAL MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA**  
Herriko Antzokian



**16:30 "TXAN MAGOA"REN IKUSKIZUNA**  
Herriko Antzokian



## [ 17 EGUENA ]

**18:30 MANIFESTAZIOA**  
"Herriak du hitza, merkadilloa: konponbidea"  
Isteera: Plaza Handitik  
Antolatzailea: Elgoibar Bizirik



**19:30 KORRIKAREN AURKEZPENA**  
Kultur Etxeko hitzaldi gelan  
Antolatzailea: AEK euskaltegia

## ZINE KARTELDEGIA

### ELGOIBAR HERRIKO ANTZOKIAN

#### «Ocean's Twelve»

12, zapatua: 19:30-22:15  
13, domekia: 19:30-22:15  
14, astelehena: 19:30-22:15  
«Bombon el perro» (Z.K.)  
17, eguena: 22:15

### EIBAR, UNZAGA

#### «El Grito»

11, barixakua: 19:30-22:15  
12, zapatua: 17:00-19:30-22:30  
13, domekia: 17:00-19:30-22:30,  
14, astelehena: 19:30-22:15  
15, martitzena: 19:30-22:15  
16, eguaztena: 19:30-22:15

### EIBAR, RIALTO

#### «El aviador»

11, barixakua: 21:00  
12, zapatua: 18:30-22:00  
13, domekia: 18:30-22:00  
14, astelehena: 21:00  
15, martitzena: 21:00  
16, eguaztena: 21:00

BARRENEK ez du gerta litezkeen emandien aldaketen erantzukizunik.

**Zuzendaria:** Steven Soderbergh..  
**Antzezleak:** George Clooney, Brad Pitt, Catherine Zeta-Jones.

Hiru urte pasa dira Danny Ocean (George Clooney) eta bere lapur koadrilak historiako lapurretarik ausart eta mamitsuena burutu zutenetik. Orduko hartan, Terry Benedict (Andy Garcia) enpresari kupidagabeak Las Vegaseko kasinoan zuen kutxa gotorretik azken xentimoraino lapurtu zuten. Ezinezkoa ziruduen segurtasun neurriak gainditzea, baina 160 milioi dolar ostu zituzten. Dirua banatu ostean, taldeko kide bakoitza ahalik eta zarata gutxien ateratzen saiatu da, baina ez da erraza patrikan horrenbeste diru duzuean.

«Bombon, el perro» (Z.K.)



**Zuzendaria:** Carlos Sorín.

**Antzezleak:** Juan Villegas, Walter Donado.

Argentinako irudi garrantza eskaintzen du Sorínek. Langabezia pertsonaia nagusi bat gehiago dela esan daiteke, baina ez ditu ilusioa eta itxaropena guztiz ezabatzen. Patagonia hurrin eta gogorrean girotuta dago eta bertako biztanleen artean aurkitu zituen aktoreak zuzendariak. Argumentua simplea da: hirugarren adinetik hurbil dagoen langabetu batek saltzaile ibiltari gisa irabazten du eguneko ogia. Egun batez, txakur bat oparituko diote, arraza garbiko Dogo Argentinarr bat, alegia. Txakurzale baten arretra erakarriko du zakurrak.

# Atzera hegira



**1970**. urte inguruko erretratu zahar hau **Eduardo Iraegik** laga digu. Bera, Eibarko Armagintza Elkarteko ordezkarietako bat zen, eta egun honetan, Txikagora zihoazen bertako ama-ferian beraien armak erakustera. Argazkia hegazkinean aterata dago, Atlantiko Itsasoaren erdian. Madriletik atera, eta Nueva Yorken geldialdia egin ostean iritsi ziren Txikagora. Negozio bidaia izan zen. Ez zen hau Atlantikoa zeharkatu zuten aldi bakarra izan ordea, honetaz gain, beste hainbat bidaia ere egin zituzten Amerika aldera. Gogora ditzagun zeintzuk diren argazkian ageri direnak: Lehenengo ilaran: **Luis Santolaya (†)** eta **bere emaztea Karmele Gorostiza**. Atzean, ezkerretik eskumara: **Eduardo Iraegi** eta bere bazkidea zen **Rodolfo Etxeberria** bilbotarra. Argazkian ageri ez den arren, erretratua atera zuenaren izena ere gogoratuko dugu: **Fernando Martin (†)**.

## II. URTEURRENA



2003ko otsailaren 13an, 68 urte zituela hil zen **Javier Arriola Lizarralde (Arriola IV)**ren oroimenez urteurreneko meza izango da, domekan, otsailak 13, eguerdiko 12:30etan Maalako elizan. Joango zaretenoi eskerrak alde zuretik.



## ESKERTZA



2005eko otsailaren 7an hil zen **Irene Ormaetxea Urizarbarren**aren seme-alabek, bilobek, birloba eta gainerako sendiak, bihotzez eskertzen dituzte jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



# gurekin **hasi**



# gurekin **hezi**

Haur Hezkuntza: 2 urtetik 6 urtera  
Lehen Hezkuntza: 6 urtetik 12 urtera  
DBH: 12 urtetik 16 urtera

Matrikulazio epea: otsailaren 14tik 24ra  
Ordutegia: 9'00etatik 19'00etara  
Argibideak: 943 741 331 telefonoan  
e-maila: [nsp42elg@planalfa.es](mailto:nsp42elg@planalfa.es)



Haur hezkuntza



Lehen hezkuntza



Bigarren hezkuntza



## EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAK: GEUREA

### MATRIKULAZIOA

2005 - 2006

Haur, Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

**OTSAILAREN 14tik 25era**



**Elgoibarko Herri Eskola**

Kalamua, 8

Tel.: 943 74 08 79

E-posta: [012777aa@hezkuntza.net](mailto:012777aa@hezkuntza.net)



**baikara**  
EUSKAL GOBIERNUAREN  
HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA



**EUSKO JAURLARITZA**

HEZKUNTZA  
UNIBERTSITATE eta  
IKERKETA SAILA



**Euskadi**  
2 0 0 4

**Elgoibarko Institutua**

San Roke, 11

Tel.: 943 74 80 19

E-posta: [bulegoa@elgoibarhi.net](mailto:bulegoa@elgoibarhi.net)